

IPAR-IRLANDAZ ZENBAIT BERRI

Azkeneko "Republican News" delakoa (1) irakurri berria dut (1973-ko Urriaren 20-koa zehazki); eta, dena irakungarria bada ere, ezin aproposago eta gogoangarriago irudituko zaizkigu bi artikuluko "Which language?" itala, eta "The Pseudo Republican" bestea. Gure arteko norik irakurriko ote ditu, ordea?

Uste izaten denaz bestalde, irlandar Irlanda, gaelikoa alegia, ez da arras hiri. Nahiz Dublin-go gobernuak ia sortzetik beretik saldu bazuen ere hie heri helburua; eta nahiz oposizioko alderdian IRA "ofiziala", marxismozko betekada betean, britaindar ezkerriarra lerratu bazen ere, Irlandar Irlandaren helburua, itxaropenen mailan bederen, herriaren-gan bizi da oraindik.

Ballymungo leitsagarrikeria aipatu nuen behin Z. ARGIA honetan: txex; baina, batera Eliza katolikoaren eta gobernu ofizialaren kontra, abertzaleak nagusitu egin zirela ez nuen esan: gaur, "irlandar" gobernu bortsatu delako, gaelikera huteszko eskola bat azaldu da Dublingo hauz horretan...

"Learn your national language", irakur daitezke letra larritan boskarren orrialdean: alegia, ikas ezazu zeure aberri-hizkuntza. Zergatik ikas? Bertan irakur daitezkeen erantzunak ez dute zalantza-tarte zabalik uzten, eta hitzez hitz itzuliko ditugu emandako argudiak: "irlandar hizkuntza, gaelikera, irlandar naziotasunaren funtsa, bera delako" (Irlandar abertzaleak sozial-imperialismoari bildur ez zaizkionez gero, hainbestetan madarikatutako "essentialismo"an bizi dira, eta "the essence of Irish nationality" aipatzen dute argi-eta-garbi).

Baina goazen aurrera. "Irlandar nortasuna gaelikera da; eta irlandar nortasun hori ezin daiteke indar eta ez funka, irlandar hizkuntza-rend indartzearen eta finkatzearen bitartez baizik".

Eta beharbada oraindik ere garbikiago mintzatuz: "Irlanda askatu eta batuan, maitatua, ohoratua eta gutziz nagusierazia —completely restored— izango da irlandar hizkuntza, epe baten buruan erresumaren lege-hizkuntza bihurtuz". Eta Irlandaren bururak ari delarik: "Britaindar imperialismoren kontra ari gara gudu".

Uster-ko abertzaleak, horretara, ez dira leunak Hegoaldeko Irlanda "askatu"aren gobernuarkeiko: "orain dela 50 urte... hizkuntzaren alde-tik, azalikeriaz, sabotaje, gezurrez, gihurrez, azpikeriaz eta zabarkeriaz larritz oratua izan da Dublin-go gobernuaren politikabidea... Eta gaur egun, asmorik ere ez du —Ulsterarreko azpimarkatzen dute, ez guk— asmorik ere ez du, beraz, irlandar hizkuntza nagusi arazeko".

Hori dela-ta, "poster" bat zabaldu da barra-barra aste hautetan Ulster-en osoan eta Belfast-en bereziki: "Britaindar armada inglesezt mintzo da. Eta zuk zenk zer hitzgeiten duzu?".

Jokabide eta ideia hauek gaizki ikusten dituzte hai Londres-ko gobernuak, bai Irlanda "askatu"koak, eta bai Dublin-go IRA "ofizialak". Honek, super-ezkerlar gutzitan mirespena bilduz Londres-en eta Paris-en, hau erantzun du: "abertzatasun hori 'burgesa' da". "Republican News" honek azaltzen duenez, IRA "ofizialari", "Irlanda Askatua ez zaio funtsean axolaria"; eta onartzen duelarik ere, "taktika hutsarengatik onartzen du" (it is only a tactical ploy).

IRA "ofizialak" dionez, "provisionalak" (lehenago neure artikuluan azaldu nuenez, Irlanda batua edozer baino lehenago nahi duenak) "ez du politikabide garbirik". Politikabide hori "burgesa" dela ere esaten dute. Hona hemen, ordea, "Eire Nua" deritzan bildumaren funtsa:

- 1) Britaindar Armada Irlanda gutzitik kanpora.
- 2) Kolonizariaren eta neo-kolonizaria gutzitan amaia.
- 3) Bi Irlandaren batasuna.
- 4) Piskanaika joanez, Irlandako industriren soziafuntzia.

Baina "Provisionalak", "Republican News" honetan garbiri agertzen denez, ez dira marxista. Eta, gure artean ere oso jakina denez, marxista fedetik pasa eta eliza gorrian sartu nahi ez duena, "anatemata" da, eta nahi-ta-ez "burgesa"... Gauza bera "provisional"ak, noski. Zer besterik izan litezke bada?

Baina Irlandar abertzaleak ez dira kikiltzen: "Marx ez zen izan pentsatzaile oso eta arrailduragabe bat, baina Kondairaren eta gizar-tearen aztertzaile bat; batzutan argitsu, bai, baina bestetan nahasia eta baliogabea". Horra hor bira! Jesukristo argitsua izan da batzutan, bai, baina bestetan nahasia eta baliogabea. "Ha blasfemado!", esan-go zukeen Torquemadak; eta sirtara araziako zukeen gupidarrik gabe, Gauza bera Ulster-en. Eta Irlandaraino gabe, ez ala? Haurrek berek kristau aldetik biraucik beltzenak izan direnak botatzen dituzten mementoan, beharrezko birau berriekiko perlesiak jota agertzen dira denak.

Irlandan ez, halere: "IRA ofizialaren" politika, ez da politikabidea, hiztontzikeria baizik: "a mere ragbag of senseless jargon".

IR9 marxistak, Londresko eta Dublingo gobernuak bezalaxe, beste "amets burgese" bat salatzan du "provisional" etan: "the military strategy". Militar egintza horiek "Oglaigh na hEireann" en "sektarismoa" erakusten omen dute. Baina, beti ere "Republican News" mintzo, "Ulster-ko egoera osoa da sektarioa"; ezen "sei Konderriaren katoliko ez direnen eskutian baitago hain zuzen politika eta ekonomiarren agintea". Eta azaltzen: "ez ditugu guk etsalari Protestante direlako hautatzen, baizik-eta politikaren eta ekonomiarren mailan duten jokabidearengatik".

Arte horretan irlandarrak hiltzen ari; eta britaindarrak torturatzen ari.


Eta IRA "ofizialak" beste Agiri bat argitara berria du, "IRA provisionalaren presoen jokabideak gaitzesteko"...

"Mundua zabalba baita, eta ez baita hortxe bukatzen; mundua eta inperialismoa berberak baitira leku guztietan; eta "ziririk gaiztoena ezpal berekoa" atsoititzak beti ere balio baitu.

LARRESORO

(1) Republican Press Centre —182, Brompton Park— Belfast.

EUROPAREN AHULEZIA



Petrolio arazoa bizi - bizi hor dago

Judu eta arabeen arteko borroka nabarmen agertu du Europaren ahulezia. Arabeen morroi ginela esaten nuen joan zen asteko lanean. Baina, hori bakarrik ez da. Judu eta arabeen borrokan Europa elkartuak ez du itzik izan. Konponketa, URSS eta Ipar Amerikaren artean bakarrik egin da, Europari bere iritzi ezertaroko eskatu gabe. 1967. gertatirik toki ederean gaude! Orduan, batez ere, Frantzia eta Britaina Andieren itzala, andia izan zen. Baina, oraingo honetan, mespretxuz beterik, Europa elkartuaz bazeriturik geratu da.

Egoera honek, europarrak zerbaiz mugierazi ditueal dirudi. Ilabete pare bat bada Pompidou Frantziako lehendakariak Europako buruzagien bildu beharrez mintzatu zela. Ez zuen arerra andirik izan. Orain, bapatean, behar hori, denek nabaitzen dute. Eta il honen erdi aldera biltzekotan dira, ain zuzen, Europa elkartuaren buruzagiak.

Horrela, aldian behin elkartzeko asmatan dira. Egia esan, gertakaria honek garrantzia andia du. Europa bizi dela adierazten du guzxienez behintzat. Alaz ere, kanpaiak joerazteko hainbateko gertakaria ez da.

Izan ere, Europa bat egingo dela pentsatzea, oraindik amets bat besterik ez da. Estadu bakoitzak bere nortasunari tinko eltzen dio. Strasburgoko Parlamentari edo Bruselako Batzordeari indarra emateko prest dagoen buruzagirik ez da ikusten. Estaduen gain egongo litzatekeen erakunde bat jasotzea, Pompidouk inolaz ere onartuko ez lukeen gauza litzateke. Begira, gaur bertan, Europaren izenean Ipar Amerikaraino ere beste edozein-kin itzigitako ordezkari bat izendatzea eskatzea bera ere, amets bat da.

Ordezkarit bat izendatuko balu Europak, indar andiagoa izango luke.

Alderdi guztietatik obe izango luke, baina, horra, beste munduko gauza ez da dena gaur Europarentzat ezinezkoa da. Buruzagien elkaritzeta hauek, beraz, ez dira politika batasuneri elduko diotenak izango. Momentuko arazoak erantzuteko eginak dira. Gerora, agian, aldatuko dira, baina, oraingoz, ez dago ametsik egiterik.

Lehenago astean esan nuen bezala petrolio arazoa du bizi bizi Europak planteaturik. Gai horretaz, inflazioaz bezala itzegingotu dutela, pentsa daiteke. Gaurerago, ordea, petrolioaz ez dago itzegiterik geroari begiratu gabe, alegia, uranium arazoaz pentsatu gabe. Nuklear indarrak geroz eta garrantzi andiagoko izango duelarik, erabakiak gaurtik ari behar dira. Bestela, hemendik ogeitabost urtetara, Europa berriro ere morroi izango bait da. Arazo honetat, duela amasei urte Louis Armand, Franz Etzel eta Francesco Giordani gizon ospetsuak mintzatu ziren "Europarentzat elburu bat" deitu zuten txostenean. 1967 urterako 15 miloi nuklear zentral erakiri behar zirela esaten zuten gizon hauek. Ez alferrik! Gehienek erotzat jo zituzten.

Denok dakigu gero zer gertatu zen. De Gaulle jauna medio zela, Euraton erakundeak ez zuen bizitza kementsurik izan. Erdipurdika irau du. Gaurerago, bestalde, Europa gastatzen den argi indarretik %eko bat nuklear indarrez egiten da. %eko bat hortarakoxe bakarrik behar den lehen gaia, Ipar Amerikari erosten zaio. Atera, beraz, non gauden kontuak. Txatxukeria horretarako Ipar Amerikaren morroi bagara, gerora zer gertatuko ote da?

Orain indar kontuan petrolioaren morroi bagara, arabeen morroi, alegia, gerora, beste gauza eskotan bezala, Europa Ipar Amerikaren morroi izango da, nuklear indarrean, alegia.

Egoera triste hau ikusirik, arazoa nolobait konpondu nahirik badabiltza. Zoritxarrez, hemen ere, europarrak sakabanaturik arkitzen dira. Frantsesek bide bat artu dute eta holandarrek, britainiarrek eta alemanek beriz, beste bat. Uranium aberastua sortzeko bakoitzak bere soluzioa daduka. Zer soluzio ezarriko da Europa! Frantziak dienez, bi soluzioak omen dira egokiak eta bat bestearen aurka ez omen doaz.

Hori esan arren ordea, ez duzu ikusiko, frantsesik beste bide horren alde egiten lanik. Bakoitzak berea ezarri nahi du. Konponduko bailira Europa pauso andia eman-go luke. Europak, itz utsa ez dela, adieraziko litzateke.

Askoz obe itxuragabeko Concord abioi horretan sartu zituzten milioiak, nuklear indarrean sartu izan bailituzte. Baina, zer egingo da. Sistema aldrebes honetan horrelako eta beste amaika ikusiko dugu oraindik.

Begira, beraz, gure Europa non dagoen. Beste modu batetara arazoa erabaki beharra dago. Europak, beste egitura eta erakunde batzuk behar ditu. Orain buruzagi direnek ez dute azkartasunik azaldu. Beste modu batetako Europa behar da. Gizarte kapitalista honek eskaini diguten Europa honekin, ezer gutxi dugu egiteko.

Beste Europa hori nolokoa izan daitekeen asmatzea, ez da erraza. Ikusi besterik ez dago, bestela, Frantziar Mitterrand jaunak dituen problemak. Frantziako sozialistak nahiko larri dabilta Europa dela eta ez dela. Izan ere, arazoa, ez da txantxetako. Baina, honetat, beste batez mintzatuko naiz, ain zuzen. Frantziako sozialistek arazoa nola ikusten duten adieraziaz.

J. ELUSTONDO

JOSE ZINKUNEGI'REN
OPTICA BERRIA DONOSTIAN
 URTIETAN LAN OIETAN OITUA
 BARRUAN DANAK EUSKALDUNAK
 Nernani, 4 DONOSTIA



YOGUR
GURELESA
GOGOZKOENA

